

Ipuinak eta proposamenak

Ondoren datozen ipuinak manipulatu eta eraldatzeko asmoarekin eskaintzen dizkizuegu.

Ipuin bakoitza proposamen batekin dator; egitura literarioak manipulatu eta sormen ariketa baten moduan planteatzen dira beraz.

Proposamen hauek irakaslearen irakurketa lasai eta komentatu baten bidez hasiko dira. Agian irakurketa hori errepikatuko da behin baino gehiagotan, gero eskatzen den manipulazioaren arabera. Zenbaitetan ere, eskaeraren arabera, testu idatzia ere eduki dezakete eraldaketa osatzeko.

Baina ahaztu gabe aktibitate honek zerikusia duela, berriz ere, entzumenarekin eta ulermen estrategien garapenarekin.

Ipuin sorta hau, bai egituraz bai hizkuntzaz, oso xaloa da. Sinpletasun honek lagunduko die hurrei gero bete behar dituzten aktibitateak burutzen.

Honako ekintzak proposatzen dizkizuegu: hurrengo orritik behera daude.

Mokobeltz

Onditzek sei urte bete zituenean, txori bat erregalatu zioten gurasoek. Kardantxilo polita eta arina zen.

-Eskerrik asko, aita! Eskerrik asko, ama! –esan zuen Onditzek-, pentsatu dut zein izen ipini kardantxiloari.

-Eta zein izen ipiniko diozu, bada? –galdetu zioten aitak eta amak.

-Mokobeltz.

Kaiola batean sartu zuten Mokobeltz eta alpistea eta ura ipini zizkioten.

-Badakizu Onditz: hemendik aurrera zeuk zaindu beharko duzu Mokobeltz.

Zeuk emango dizkiozu alpistea eta ura; eta zeuk garbituko diozu kaiola.

-Oso ongi, ikusiko duzue nola zaintzen dudan Mokobeltz polita.

Lehendabiziko egunetan txorrotxio alaiez esnatzen zituen Mokobeltzek etxeko guztiak. Onditz oso gustura zegoen:

-Nire Mokobeltz da munduko txoririk alaiena!

Baina goiz batez oso gutxi kantatu zuen Mokobeltzek.

-Zer gertatzen ote zaio txoriari? –pentsatu zuen Onditzek. Baina ez zen gehiegi kezkatu.

Hurrengo goizean Mokobeltzek ez zuen txorrotxio triste, labur bat besterik kantatu.

-Gaixo ote dago? –pentsatu zuen Onditzek. Baina ez zen gehiegi kezkatu.

Eta hurrengo goizean Mokobeltzek ez zuen batere kantatu. Joan zen Onditz kezkatuta balkoira eta han ikusi zuen Mokobeltz, kaiolako ertz batean triste-triste eta geldi-geldi.

-Zer gertatzen zaizu? –galdetu zion Onditzek. Eta Mokobeltzek triste begiratu zion, baina ez zuen txorrotxiorik egin.

-Aita, aita! –oihu egin zion Onditzek aitari– Mokobeltz hiltzen ari da!

Etorri zen aita sukaldetik balkoira eta esan zion Onditzi:

-Onditz, Onditz! Mokobeltz berehala hilko zaizu alpistea eta ura ematen ez badizkiozu. Zuk egunero bazkaltzen eta afaltzen duzu, ezta? Ba, berdin Mokobeltzek ere.

Eman zizkion Onditzek alpistea eta ura Mokobeltzi eta berehala hasi zen kantari.

Harrez geroz, Onditz ez da inoiz ahazten alpistiaz eta uraz, eta Mokobeltzek esnatzen ditu goizero Onditz, aita eta ama bere txorrotxio alaiez.

Proposamena.

Ipuinaren irakurketa eten, azkeneko pasadizoan:

“Aita, aita! –oihu egin zion Onditzek...”

Hortik aurrera bukaera desberdinak eskaini ipuinari amaiera emateko:

*Aita konturatu zen kardantxiloa goseak zegoela. Onditzek janaria eman zion eta osatu egin zen txoria.

*Aitak eta Onditzek pentsatu zuten kardantxiloak kantatzen ahaztu zuela eta kantari hasi zitzaizkion, berriz ere ikasteko...

*Kardantxiloa askatu zuten eta ondoko parkera joan zen bizi izatera.

Arin-Arin erbiaren bihurrikeriak

Arin-Arin erbia bere gurasoekin bizi zen mendiko zulo batean. Arin-Arin bihurri samarra zen eta zulotik irten nahi izaten zuen beti. Baina gurasoek ez zioten uzten.

–Ez. Arin-Arin, ez, txikiegia zara oraindik. Zulotik irteten bazara, ehiza-txakurrak jango zaitu –esaten zion egunero aitak.

–Ez, Arin-Arin, ez, txikiegia zara oraindik. Zulotik irteten bazara, azeriak jango zaitu –esaten zion egunero amak.

–Ez, Arin-Arin, ez, txikiegia zara oraindik. Zulotik irteten bazara, ehiztariak tiroz joko zaitu –esaten zion egunero aitonak.

Baina Arin-Arinek azeria, ehiza-txakurra eta ehiztaria ezagutu nahi zituen. Eta zulotik irten zen goiz eder batean. Mendian salto eta brinko zebilela, azeria azaldu zitzaion.

–Nor zara zu? –galdetu zion Arin-Arinek.

–Ni? Azeria! Eta jan egingo zaitut. –esan zion azeriak hortzak erakutsiz.

–Zaude, zaude, azeri jauna. A ze hortz itsusiak dituzun! Dentistarengana joan beharko duzu.

–Eta non bizi da dentista?

–Laster esango dizut.

Eta azeria zain geratu zen. Halako batean ehiz-txakurra agertu zen.

–Nor zara zu?–Galdetu zion Arin-Arinek.

–Ni? Ehiza-txakurra! Eta harrapatu egingo zaitut –esan zion ehiza-txakurrak mingaina mugituz.

–Zaude, zaude, ehiza-txakur jauna. A ze mingain zikina duzun! Sendagilearengana joan beharko duzu.

–Eta non bizi da sendagilea?

–Laster esango dizut.

Eta ehiza-txakurra ere zain geratu zen. Halako batean ehiztaria agertu zen.

–Nor zara zu? –galdetu zion Arin-Arinek.

–Ni? Ehiztaria! Eta tiroz joko zaitut –esan zion ehiztariak eskopeta begi-parera eramanaz.

–Zaude, zaude, ehiztari jauna. A ze begi tristeak dituzun! Okulistarengana joan beharko duzu.

–Eta non bizi da okulista?

–Laster esango dizut. Bitartean zaudete hemen zain, dentistari, sendagileari eta okulistari hona etortzeko esango diet-eta.

Arin-Arin, azeria, ehiza-txakurra eta ehiztaria zain zeuden bitartean, korrika hasi eta zuloraino iritsi zen. Eta zuloan sartu ondoren, oihu egin zion azeriari:

–Azeri, azeri, ni janaz behintzat ez zaizkizu hortzak gehiago itsusituko. Eta inoiz dentistarengana joaten bazara, eskumuinak nire partetik.

Eta ehiza-txakurrari esan zion:

–Ehiza-txakur, ehiza-txakur! Ni janaz behintzat ez zaizu mingaina garbituko. Eta inoiz sendagilearengana joaten bazara, goraintziak nire partetik.

Eta ehiztariari esan zion:

–Ehiztari, ehiztari! Niri tiro joaz behintzat ez zaizkizu begiak alaituko. Eta inoiz okulistarengana joaten bazara, agur beroenak nire partetik.

Arin-Arinek adarra jo zuela konturatu zirenean, han joan ziren ehiztaria ehiza-txakurraren atzetik, ehiza-txakurra azeriaren atzetik, eta azeria bere itzalaren aurretik.

Proposamena

Irakurri pasarte honetara iritsi arte:

“Arin-Arin, azeria, ehize-txakurra eta ehiztaria zain zeuden bitartean, ...”

Ondoren, ipuinaren bukaera dator.

Ea asmatzen duten bukaera txukun bat animalia bakoitzarentzat.

Irakasleari diktatu eta ipuina osatu.

Barraskilo alferra

Barraskiloen herrian, barraskilo txiki bat jaio zen. Bere gorputz gainean etxe borobil, polit bat zuen.

Barraskilo txikia oso alferra zen.

–Aspergarria da barraskilo izatea –esaten zuen–. Bizkar gainean eramane behar izaten dut etxea eta gehiegi pisatzen du.

Behin mendira joan eta etxea kendu zuen sasi batean ezkutaturik.

–Uf! Zein lasai eta arin nabilen orain etxerik gabe! Iupi, iupi, zein ongi nabilen horrela!

Korrika bizian jaitsi zen barraskiloen herrira.

–Begira, begira, zein arin nabilen etxerik gabe!

–Nor zara zu? –galdetu zioten barraskilo guztiek.

–Barraskilo txikia.

–Gezurti! Zu ez zara barraskilo bat! Zu bare gezurti bat besterik ez zara.

Barraskiloek bizkar gainean daramate beren etxea. Zoaz gure herritik, gezurti!

–Barraskilo txikia naizela!

–Zoaz, gezurti, zoaz hemendik!

Barraskilo txikia negarrez, pentsatzen hasi zen:

–Mendira joango naiz eta etxea jantziko dut. Ez dut bare izan zahi.

Joan zen mendira eta etxe bila hasi zen sasi artean. Baina belar guztiek berdinak ziruditen, denak berde-berde eta luze-luze, eta barraskiloak ez zuen aurkitzen sasitan gordetako etxea.

Bila eta bila, gaua iritsi zitzaion barraskiloari. Dena ilundu zen. Barraskilo txikia negar bizian ari zen, beldurrez eta erabat nekatuta. Gaztainondo baten adarretan hontza zegoen.

–Ui! –pentsatu zuen hontzak–, barraskilo bat negarrez. Zer gertatzen zaizu, barraskilo?

–Nire etxea galdu dudala, gaua dela eta ezin dudala etxea topatu. Eta aurkitzen ez badut, ezingo dut nire herrira joan.

–Zaude lasai! –esan zion hontzak–, badakizu hontzek badakigula gauez ikusten–eta.

Eta hontza gaztainondoko adar handienera igo zen eta dena begiratu zuen. Belar batzuren artean, barraskiloaren etxea ikusi zuen.

–Han dago! Goazen, etxea janzten lagunduko dizut! –eta etxea ipini zion bizkar gainean.

–Eskerrik asko, hontz jauna, orain nire lagunengana joango naiz.

Etxeak asko pisatzen zuen baina barraskiloa ez zen konturatu ere egiten. Korrika bizian jaitsi zen bere herrira.

–Eh! Eh! –deiadar egin zuen–. Ni naiz! Barraskilo txikia! Irten, irten, zeuen zuloetatik!

Barraskiloek, beren zuloetatik irten eta esan zioten:

–Igel batek jan zintuela uste genuen... A ze poza!

Proposamena

Barraskiloak eta bareak oso antzekoak dira: biak arrastaka ibiltzen dira; hosto goxo-goxoak jaten dituzte; mukitsuak dira biak ala biak...

Baina barraskiloek gainean eramaten dute bere eskola, etxea esaten diote. Bareek, berriz, eskolik ez dute eta arinago ibiltzen dira horregatik.

Hara zer gertatzen zaion barraskilo txikiari. Erne-erne entzun ipuina, gero komiki bat egin zure lagunekin batera, eskolako txikiei erakutsi eta kontatzeko.

Ezertarako balio ez omen zuen igela

Igela kroak-kroak ari zen ibai ertzean. Hantxe zegoen, lasai asko, harri zabal baten gainean kroak eta kroak.

Oilo bat inguratu zitzaion haserre:

–Isilduko al zara, igela? Aspertu egiten nauzu zure kroak-kroak itsusiaz.

–Aja! Eta zuk ez al duzu pio-pio-pi egiten beti?

–Bai, baina nik arrautzak ipintzen ditut. Zuk, ordea, ez duzu ezertarako balio.

Igela lotsatuta geratu zen. Baina ez zekien besterik egiten eta kroak eta kroak jarraitu zuen.

Ardi bat inguratu zitzaion haserre:

–Isilduko al zara, igela? Aspertu egiten nauzu zure kroak-kroak itsusiaz.

–Aja! Eta zuk ez al duzu bee-bee egiten beti?

–Bai, baina nik esnea eta artilea ematen ditut. Zuk, ordea, ez duzu ezertarako balio.

Igela triste geratu zen baina ez zekien besterik egiten eta kroak eta kroak jarraitu zuen.

Txakur bat inguratu zitzaion haserre:

–Isilduko al zara, igela? Aspertu egiten nauzu zure kroak-kroak itsusiaz.

–Aja! Eta zuk ez al duzu uau-uau egiten beti?

–Bai, baina nik nagusiaren etxea zaintzen dut eta ehizean laguntzen diot. Zuk, ordea, ez duzu ezertarako balio.

Igela atsekabez geratu zen. Baina ez zekien besterik egiten eta kroak eta kroak, kroak eta kroak jarraitu zuen.

Behin mendietako elurrak urtzen hasi zirenean, ibaia inoiz baino beteago zetorren. Igela konturatu zenean, joan zen oilategira eta esan zion oiloari:

–Kroak-kroak! Ibaia bete-betea dator eta kontuz zu eta zure txitak ito gabe!

Oiloa eta txitak oilategiko teilatura igo eta beren hankapetik ibaia pasatzen ikusi zuten.

Joan zen igela ardiaren bordara eta ardiari esan zion:

–Kroak-kroak! Ibaia bete-beteta dator eta kontu egin zure gaztei.

Ardia bordako teilatura igo zen, eta berekin eraman zituen gazta guztiak.

Hankapean ikusi zuen ibaia nola pasatzen zen lodi-lodi.

Joan zen igela baserrira eta txakurrari esan zion:

–Kroak-kroak! Ibaia bete-beteta dator eta kontuz zu eta zure nagusia ito gabe!

Txakurra eta bere nagusia baserriko teilatura igo eta beren hankapetik ibaia pasatzen ikusi zuten.

Harrez geroz, igelaren kroak-kroak etengabea munduko doinurik politena iruditzen zaie oiloari, ardiari eta txakurrari.

Proposamena

Ipuin hau kateatzen den neurrian, oso erraza da memorizatu eta, antzeppen baten bidez, beste gela bati eskaintzeko.

Antzerki polit bat egin dezakezue ipuin honekin.

Loturazko narrazioa sinple baten harian, animalia bakoitzarekin egiten den elkarrizketa erritualizatu, behin eta berriz errepikatuz. Edozein antzeppenarekin egiten den prozesua errepikatu: eskenatokia, pertsonaiak, jantziak, narratzailea...

Beste geletako ikasleak gonbidatzeko, antzeppenaren egitarauak egin eta zabaldu...

Katurik ezagutzen ez zuen sagua

Sagua beti katuaren beldurrez bizi dela? Gezurra! Ezagutu nuen nik behin katuaren beldurrik ez zuen sagu bat. Ganbara batean bizi zen eta ezagutzen zituen armiarma, arkakusoa eta pipia. Baina ez zuen katurik ezagutzen, katu bat zer zenik ere ez zekien. Baserri hartan nonbait ez zen katurik bizi.

Baina behin, arkakusoa, pipia eta armiarma eta sagua ganbaran partxisean jokutzen ari ziren batean, hara non entzuten dioten baserriko nagusiari:

–Bihar katu bat erosi behar dut azokan amonaren hanka hozpelduak berotzeko.

Saguak, hau entzun zuenean, galdetu zuen lasai asko:

–Katu bat erosi? Eta zer da katu bat?

Eta armiarmak erantzun zion saguari:

–Sagu gizarajoa, kontuz ibili zaitez!

Eta arkakusoak esan zion saguari:

–Jesus, Maria eta Jose! Zerbait pentsatu beharko dugu.

Eta pipiak esan zion saguari:

–Ai, ama! Ez al duzu beldurrik?

Sagua larritzen hasi zen. Makina bat galdera egin zion bere buruari:

–Zer ote da katu bat? Zer arraio ote da katu bat?

Galdera hauen erantzunik ez zuenez, erabaki sendoa hartu zuen saguak gau hartan: saguak berak goxatuko eta berotuko zizkion amonari hanka hozpelduak.

Pentsa eta egin. Jaitsi zen sagua sukaldera eta amonaren gonapean sartu zen.

Baina amonak hanka artean sagua sentitu zuenean, izugarritzko kurriskada bota eta aulki baten gainera igo zen, bihotza “ra-ta-ta-ta” hasi zitzaion eta saguak, zer gertatzen ote zen jakin gabe, ihes egin zuen handik, badaezpada ere.

Une hartantxe, baserriko nagusia sukaldera sartu zen eta inoiz baino garbiago ikusi zuen katuaren beharra, amonak gertatutakoaren berri eman zionean. Eta hala hurrengo egunarekin batera agertu zen katu beltz bat etxean.

–Ikusiko du sagu madarikatu horrek! –bota zuen baserritarrak.

Eta “zapi!, zapi!” eginaz, ganbarara bidali zuen katua.

Katua ganbaran sartu zenean, hortzaka egin zion arkakusoak ipurdian, eta katuak “miau!” egin zuen; pipia sartu zitzaion sudurrean eta katuak “marramiau!” egin zuen; sare bat ipini zion begietan armiarmak eta katua, ezer ikusten ez zuenez, ganbarako eskaileretatik behera erori zen.

–Saguak esan zien arkakusoari, pipiari eta armiarmari:

–Eskerrik asko!

Eta baseritarrak saguak harrapatzeko balio ez zuen katu baldar hura hartu eta azokara eraman zuen berriro. Eta azokan katua saldu zuen. Katuagatik eman zioten diruaz butanozko estufa bat erosi zuen amonarentzat.

Orain butanozko estufak berotzen ditu amonaren hanka hozpelduak.

Proposamenak

Ipuina eraldatuko dugu pertsonaien izena eta izana aldatuz:

*Saguaren ordez: Ainara, neska txikia.

*Katuaren ordez: otsoa.

*Armiarmaren ordez: Xabier, mutil handia.

*Arkakusoaren ordez: andereñoa.

*Pipiaren ordez: Maddi, neska handia.

Ea zer gertatzen den aldaketa guzti horiekin...

Testuaren gainean, egin beharreko aldaketak egin eta pasarteak berrantolatu aldaketen arabera...

Aldaketak diktatu irakasleari eta ipuin berria sortu.

Ondo pasa!!!